

Biziberrikuntza

*hilezkortasunaren sinbolotzat; handik zabaldu zen Ekialde Urrunera eta Mendebaldeko Herrietara, eta bereziki juduen eta kristauen Bibliara (ik. Gn 2,9). Alde horretatik, zer sakratuaren agergarri bihurtu da zuhaitza berez, eta batez ere halako zuhaitz bereziren bat, Herri bakoitzak "aukeratua".

Kristau-teologiaren arabera, Kristok bizi-eman eta gizadi osoari *bizi berria ekarri zioneko gurutzea da benetako "biziaren zuhaitza".

Ik. Zuhaitza.

Biziberrikuntza

Ik. Berriztapena, 1.

Biziberritzea

Ik. Bihotz-berrikuntza.

"Bizitza eta ekintza"

*Elizarteko Kontseilu Ekumenikoaren barruko sailetako bat, kristau-fedeak eremu sozial, politiko eta ekonomikoan duen eraginaz diharduena.

Bizitza luzea

Luzaro bizitzea eta bizitzako urteak ugaritzea izan dute historian zehar gizadiak, kulturek eta erlijioek helburuetako bat. Hainbat erlijiotan Jainkoaren bedeinkapenik handienetakoa zen luzaro bizitzea, hala nola, Txinan, Israelen, etab.

Bizitzako liburua

Apokalipsia liburua (3,5; 13,18; 17,8) aipatzen duen idazti sinbolikoa da, Jainkoaren asmoen adierazgarria. Bere hautatuen izenak liburu horretan idatzita omen dauzka Jainkoak.

Ik. Predestinazioa.

Blasfemia

Ik. Biraoa, 4.

Bodhizattwa

Aurrenik, Gautama Buda-ri berari, buda izatera edo argitasunera igaro aurretik ematen dioten titulua da.

Baina Mahayana budismoaren arabera, nirvana-ra sartzeko prestaturik egon, eta, hala ere, betirako hara sartu aurretik bere gogoz luzatu egiten duena da: luzatu, beste gizon-emakumei *berraragiztapenen katea haus-tan laguntzearen, hain zuzen ere.

Bogomiloak

Hamabigarren mendean balkaniar herrialdeetan oso zabalduko kristau-sekta mani-

keua. Bulgarietaz, "Jainkoaren maitalea" esan nahi du hitzak: badirudi grezieraz gauza bera adierazten duen theophilos hitzetik datorrela.

Horien ustez, Jainkoak giza arima besterik ez du sortu; gorputza, ordea, *deabruaren lana da, mundua bezala. Kristok berak ez omen zeukan benetako gorputzik, itxura hutsezkoa baizik. Horregatik kristau "burutuak" ezkontza, okela, ardoa eta ondasun guztiak laga egin behar ditu. Fededun arruntak, berriz, horien menpe egon beharra daukate. Kristau-sakramentuak ukatu egiten zizuten, baita Ama Birjinari eta santuei gurtza ematea ere.

Bulgarian X. mendean sortua, gero oso zabaldu zen balkaniar Herrietara baita Asia Txikira, Italiara eta Frantziara ere; azken honetan albitarren eta *kataroen mugimenduari eragin zion. Turkiarrek XV. mendean balkaniar Herriak beretu arte irauin zuen horietan bogomilismoak.

Ik. Manikeismoa; Ongia eta gaizkia.

Bon erlijioa

Budismoaren aurretiko Tibet-eko erlijio tradizionalaren izena.

Txamanismoa eta *animismoa ditu bere bereizgarriak. Budismoaren eraginez erlijio modu sinkretikoa hori eratu zen, oraindik ere bizirik dirauena. Bilakaera luze batez *txamanismoa garaituz, budismoaren forma be-rezi bihurtu dela esan daiteke.

Ik. Lamaismoa.

Bonetea

Ik. Birreta.

Bontzoa

Japonieratik datorren hitz hori monako budista adierazteko erabiltzen da.

Bost elementuak

Mundu fisikoaren egitura adierazteko lehenetariko ahalegina txinatar kosmologian; hauek ziren elementu edo ekai behinenok: zura, *sua, *lurra, metala eta *ura. Gerora Yin/Yang printzipioen teoriarekin loturik, munduaren eboluzioaren indar eragile bihurtu ziren elementu horiek txinatar gogamenduan.

Filosofia grekoko lau elementu kosmologikoak beste hauek dira: ura, airea, sua eta lurra.

Boterea

Zuzenean filosofia sozialeko kontzeptua da, eta honela defini daiteke: Nork bere

nahia inorenaren (gizabanakoaren nahiz gizataldearen) gainetik --nahiz kontra-- ezartzeko eta inoren jokabideak determinatzeko eta bere menpean edukitzeko ahal eta eskua.

Ez da autoritatea kontzeptuarekin nahasi behar; hori, boterepekoen aldetik, botere ezagutua eta onartua da; hura, berriz, autoritaterik gabe --legezkorik nahiz bidezkorik gabe-- gerta daiteke. Era berean, beste bi kontzeptuetatik ere bereizi behar da boterea: Ahala eta indarra kontzeptuetatik, alegia. Jainkoa ahalguztiduna da, gizakiak bere ahalmen izpiritualak ditu... Baina boterea errealitate soziala da. Olatuen indarra, haizearen indarra, lehoiaren indarra edo euskaldunaren indarra aipatzen dira... Baina horien botereaz ez dago hitz egiterik, metafora bidez ez bada. Dena dela, hizkera arruntean nahasi egiten dira sarritan hiru hitz horiek; eta egoki izan ere, ez da gehiegi bereiztea egokiena.

Soziologiako edota filosofia sozialeko kontzeptua izanik ere, erlijiozkoarekin loturik dago boterea aspaldi-aspalditik: Egyp-ton, esate baterako, botere politikoarekin erabat bat eginda zegoen erlijioa.

Hiru aldetatik lotzen da boterea erlijiozkoarekin: a) Botere publikoaren oinarriak finkatzeko erlijioari heldu izan diote; sarritan boterea bera sakraltzeraino; b) Erlijio-elkartetan botere-modu bat, ideologikoa eta izpirituala, nolabait instituzionaldu izan da, sarritan beste botere-moduekin konkurrentzia eta borrokan gainera; c) Boterearen esperientziak erakusten duenez, lilura-moduko batez erasan ohi dio boteredunari eta absolutu bihurtzera jotzen du bere dinamikaz; bide horretatik, boterearen nortzapena eta mitifikazioa gertatzen da maiz.

Historian ezagutu ditugun Herri gehienetan kargudun publikoek, bereziki gorenek (erregeek, enperadoreek, faraoiek, etab.ek) boterea hartzeak erlijiozko zentzua eduki ohi du, eta erlijiozko *zeremoniez inguratuturik egoten da: e.b., *tronurapena, zin egitea, etab. Erregerenean eta orokorki kargudun gorenenean, kargu-jabetzeak kargudunaren *sagarapen-zentzua eta -itxura izaten ditu. Eta horiei beren boterea indarrez kentzea, *sakrilegio-modukoa izan ohi da. Horrela, gizarteko botere publikoen sistema osoari erlijiozko oinarri teologikoa jartzan zaio, eta finkatu nahi izaten da gainera, botere osoaren iturburua jainkozkoagan jarriz, baita botere-sistemarena ere.

Zenbait erlijiotan, hala nola antzinako Egiptokoan, boterearen adierazgarri eta iturritzat hartzen zuten bereziki Jainkoa bera. Gaurko gizarte eta sistema politiko sekular-

tuetan ere irauten du nolabait boterearen esku-aldatzeko zeremoniaren kutsu sakratuak.

Erlijio-elkarteak, sozialki harturik, botere-sistema bihurtzera jotzen du bere aldetik, barnera begira eta kanpora begira. Gizarteko botere-sistemen artean, ideologikoa betetzen du sarrietan erlijio-elkarteak, nahiz eta botere politikotik bereizirik egon. Izatez, Herri eta garai ezberdinei begiraturik, botere publikoaren eta erlijiozko boterearen arteko harremanak lau erataria eraturik ikus genitzake: a) Berdintzapenez, nolabait erlijiozko boterea eta publikoa batbera direnean; b) Autonomiaz, botere bakoitza nolabait bere aldetik dabilenean; c) Kontrakotasunez, bi botereak konkurrentzian daudenean eta zeingehiagoka dabilzanean; d) Menpekotasunez, erlijiozko politikoaren nahiz hau bestearen menpe eta zerbitzuan daudenean. Lau eredu nagusi hauen tartean bitarteko beste harreman-moduak ere gerta daitezke.

Kristautasunaren historian ere lau eredu horiek aurki genitzake, Eliza bera erlijiozko botere gisa instituzionaldu zenetik, bereziki Milanoko Ediktuen ondoren. Famatu izan da, bereziki, aita santu Inozentzio VIII.ak landuriko "Bi ezpaten teoria": hau da, *botere izpiritualaren eta *botere temporalarena; bien artean, goren erlijiozko botereak izan behar zuen, eta besteak horren menpe egon.

Hazkuntz fenomenoaren da boterearena, hau da, gero eta handiago izatera jotzen du. Horregatik badu arriskua, boteredunarentzat azken helburua boterea bera izatekoa. Horrela, botereak berez absolutu edo erabatekoa izatera (absolutismora) jotzen du; eta nolabaiteko lilura ezartzen dio boteredunari. Boterearen deabruzko izaeraz hitz egin ohi dute pentsatzaile sozialek.

Botereak hipostasiazteko, mitikotzeko eta gizakiaren eta gizartearen kontrolpetik ihes egiteko duen joeraren kontra, estatu demokratiko eta legepekoak errazionaldu egin nahi du boterea, hori banatuz eta mugatuz, eskuz aldatzeko sistemak eratuz, eta menpekoen aldetiko kontrol-moduak jarriz. Orduan boterea ahalmen juridiko: eskumen edo aginpide (aginte), bihurtzen da.

Baina legeen bidez egiten den errazionalkuntzak gizarteko boterearen parte bat besterik ez du hartzen; hortik kanpo gelditzen da botere-munduaren parterik handiena. Botere aitortugabearen eta ilunaren mundu horixe da, hain zuzen, arrisksuena, eta ez botere legeztatua, onartua eta ezagutua, nahiz eta handia izan. "Botere faktikoak" deitzen dira gaur egun horrelakoak, nolabait botere-for-

Botere izpirituala

malen atzetik daudenak. Hortxe nabari da, inon baino hobeto, boterearen erlijiozko indarra eta mitikotasuna.

Ik. Estatu; Esku sekularra.

Paulo Agirrebaltzategi

Botere izpirituala

Erljio-soziologiako kontzeptua da. *Botere tenporalari kontrajartzean, Elizaren edo hierarkiaren eskumena adierazten du, *gizarte burutua denez duena, eta estatuaren botereari kontrajartzen zaiona. Bi gizarte burutuon arteko harremanak era ezberdinez eratu izan dira historian zehar.

Ik. Estatu; Botere tenporala; Boterea.

Botere tenporala

Erljio-soziologiako kontzeptua da. Estatuaren edo agintarintza zibilaren eskumena izendatzen da horrela Elizaren historian, Elizaren beraren botere izpiritualari kontrajarriz.

Ik. Botere izpirituala; Boterea; Estatu; Estatu-Eliza; Esku sekularra.

Botua

Sin.: Zinitza

Erljiozko zioengatik norbaitek *opariren bat eskaintzeko edo bestelako *egintza onen bat betetzeko ematen duen hitza, horretara behartuta egon gabe, baina hitza ematen zaionari (Jainkoari, santuari, etab.) atsegingarria izango zaion ustetan.

Erljio askotan aurkitzen da zinitza edo botua, jainkotiartasuneko egintza eta erri-togisa, eta gehienetan Jainkoaren haserrea baretzeko edo zerbait eskatzeko.

Eliza Katolikoan bi botu-modu bereizten dira batez ere: pribatuak edo lekukorik gabe ematen direnak, eta publikoak edo erlijio-soek ofizialki Elizaren aurrean ematen dituztenak, profesioa egiten dutenean.

Ik. Erljiosio-profesioa; Erljiosoa.

Boy scouts

Ingeleseko izena da, gazte esploratzaileak esan nahi duena: 1908an R. Baden-Powell-ek sorturiko erakundea, gaztetxoek heziara sustatzeko: balore etikoak, gorputzekoak, eskulaneakoak eta gizarterakoak landuz. Akonfesionala da erakundea, erlijio aldetik. Izadiarekiko erlazio eta jarrera jatorra nabarmentzen dituzte batez ere, horren ederra hautematen eta hori arduraz erabiltzen eta zaintzen irakatsiz. Apolitikoa da, hala ere, erakundea.

Brahma

Brahmanismo zaharreko Jainko absolutua eta gorena da, alde batetik; eta *Trimurti-gan lehena, bestetik. Brahman-en giza irudia da. Brahma egilea edo sortzailea (prajapati) da, hots, munduaren etengabeko sortze-suntsitzearen gurpilean, behin eta berriro horri sortzea ematen diona, sakabaturiko elementuak bilduz.

Horrenganako gurtza oso lausotua gelditu da, Visnu-ren eta Xiva-ren gurtzaren aurrean.

Ik. Trimurti; Brahmanismoa; Brahman.

Brahman

1. Hinduismoko gorengo izpiritu unibertsala edo izate absolutua. Betierekoa da eta ez sortua; beragandik dira gauza eta izaki guztiak, eta beragana itzuliko omen dira. Ez da jaingo konkretua, nahiz eta *Brahma (sanskritoz maskulinoa) Absolutu horren pertsonifikazio gisa ulertu.

Hinduismoaren muin-muineko kontzeptu erlijiozko-filosofikoa da; Brahman da izadiaren sorburua eta izaki guztien oinarria.

2. Veda-n, ordea, erritozko indar magiko sakratua edo *adurra adierazten zuen; hortik datorkie beren izena *brahmanismoko apaizei (brahmaneak).

Upanisad-ek landu dute hasierako kontzeptu erritual hori, edukin filosofikoa eta landuagoa emanez.

Ik. Hinduismoa; Upanisad-ak.

Brahmanek

Hindu-gizarteko gorengo *kasta dira. Bereauek dute gizartean botere kulturala eta izpirituala. Gehienetan *erlijiozikizuneko buruak izan ohi dira, apaiz gisa; eta apaiz izateko kasta horretakoa izan beharra dago, beroriek bait dute *brahman-a, ahalmen sakratua edo *adurra.

Beren obligazioen artean, besteek baino zorrotzagoa dute barazkiz mantentzea eta alkoholik ez hartzea.

Ekonomi maileri begira, ezin daiteke esan gaur brahmanek goian daudenik.

Ik. Hinduismoa; Apaiza.

Brahmanismoa

Zera bat baino gehiago adierazten du hitz horrek:

1. Indiako erlijio zaharra, hinduismo modernoaren jatorrian dagoena. Era horretara hinduismo hitzarekin berarekin berdintzen da nolabait.